

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1998ko urtarrilaren 5a

*



XIX. mendeko Nafarroa milaka argazkitan

■ Fernando Hualde La Perla hoteleko harrerari da orain hemezortzi urte eta duela hemezortzi urtetik ere, Iruñeko eta Nafarroako argazki, dokumentu eta afitxe zaharrak biltzen ditu. Izan ere, La Perlan sartu zenean hotelaren historia ezagutzeko piztu zitzaion

gogoak jarri du bildumazaleen bidean, Jose Joaquin Arazurik zabaldu zuen bidean. Milaka zenbatzen ditu hemezortzi urteren buruan Hualdek Nafarroako eguneroko bizimodua oinarri duten eta bildu dituen argazkiak. ■

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Ez omen zuen merezi zakartzea, hobe omen pairatzeko prest azaltzea. Hala esaten ziguten soldaduskatik paseak zirenek. Nobatadak pasa egin behar ziren, nola edo hala.

Zorion eta itxaropenaren amuak forma anitz har ditzake, ezagunenarikoa ordea loteria biletea izan bide da, eta okerrera da oso zaila izaten dela itzuri egitea, giza artean bizi denarentzat errazena topo egitea baita; beti izanen da koadrila, taberna, peña, lantoki edo egitasmo nobleko erakunde bat. Loteriari uko egiten saiatu denak aski ongi daki zein ondorio ekarri ahal dizkion bere jarrera irmoak, onik onenean inguruko zekenena eta nazkanteena kontsideratuko dute. «Jokoa duk,

motel, ez hadi horrela jar», argitzen ahaleginduko da norbait, baina solaskideak gehienetan ez du egia aitortuko, bere gogoan eratzen ari dena ametsen ametsa baita.

Eta idioten amets handiena filmi bat da, filmina tropikalá: palmondoa, ron konbinatua horma eta frutaz gainezka, harea, itsaso eta zero ezin urdinagoak, eta mulata. Filminak Ozoresen tankerako gehigarri bat darama: mendekuen mendekua. «Izorra daitezela ergel horiek», egiten dio oiuhu munduari saritu berriak, eta lantegiko nagusiari begira: «Aizak ongi, bihar hitorriko haiz lanera». Eta irri karkailak azpimarratuko du garaipena.

Ez da, ordea, oso argi izan behar

zera ikusteko, amets horretan murgildurik dagoenak ez duela sekula ezer aldatuko, berrogeitamar milioi tokatuz gero ere ez diola lan egiteari utziko, erokeria tiikienetik ere libro dagoela. Loteria gogoz erosi eta erostarazten duena inbertitzeko grinak jota dago eta geroak makur lantzak ekar diezazkiokeela uste du.

Haurrek eta loteria zaleek beldur diote ilunpeari. Horregatik jartzen dute izeia gelaren erdian eta betetzen abarrak koloreko bonbiletz. Saso honetan hitsa izaten da kaleko giroa, eta une batez euria ari duela eman dezake. Malkoak menturaz? Litekeena da. Ikustezinen malko ikustezinak. Ergelei darien adurra, halere, joriagoa izaten da. X

KONTZERTUAK

Burlata: Zinqueto taldeak kontzertua eskainiko du gaur, arratsaldeko 20.30etan, Black Rose aretoan.

Barañain: Koma, Su ta Gar, Platero y tu, eta Etsaiak taldeekin kontzertua dago gaur herriko frontoian. Emanaldia 23.00etan izango da, eta sarrerak 1.200 pezeta balio du.

Gares: Fundamental aretoan Hondarribiko Sorotan Bele taldeak joko du bihar.

Doneztebe: Bordatxo dantzalekuan Los Dinosaurios taldeak joko du gaueko 23.00etan.

Corella: Virgen del Pilar orfeoia eta Corellako Rondallak Erregetako kontzertua eskainiko dute igandean, urtarrilak 7. Emanaldia 12.00etan izanen da San Migel elizan.

ZINEMA

Iruña: Olite zinema geletan datorren asteartean, urtarrilak 9, *La semilla del diablo* pelikula eskainiko dute.

Atarrabia: Haurrentzako zinema izanen da bihar udal zineman. *Mary Poppins* filmea botako dute arratsaldeko 16.30etan. Igandean, berriz, toki eta ordu berean *Chip y Chop*. *La perrera de los baskerville* filmea eskainiko dute.

ERAKUSKETAK

Iruña: Lacava kafetegian Jose Luis Blancoren margoak daude ikusgai urtarrilaren 14a bitartean.

Iruña: Luis Araujo, Juan eta Santiago Cla, Pilar Garcia Escribano, Arturo Gracia, Isidro Lopez Murias, Rafael Ubani, Javier Viscarret eta Ines Zudaireren lanen erakusketa ikusteko parada dago datorren asteartea bitartean, Jai Alai jatetxean.

Zangoza: Kultur Etxean Mugarik Gabeko Medikuen argazki erakusketa ikus daiteke urtarrilaren 14a bitartean. Gobernu Kanpoko Erakundeko bolondresak egiten duten lanaren 65 argazki bilduz erakusketak.

BERTSO SAIOAK

Arantz: Herriko plazan eta Aterpe ostatuan Sebastian Lizaso eta Mikel Mendizabal bertsoari ariko dira igandean, urtarrilak 7. Bertso saioa 12.30etan hasiko da plazan.

BESTELAKOAK

Iruña: San Frantzisko plazan txirrindulari gymkana dago haurrentzat igande honetan. Partehartzaileek bizikletan hainbat proba gaitu beharko dituzte eta guztien artean bizikleta bat zozketatuko dute. Ondoren, Trial Sim-eko erakustaldia izanen da.

nafar kronika

Patxi Larrion

Diruaren hotsa

Urteen poderioz lehen mailara igo izana da gure oroimenean geratzen dena. Nola igo zen, zer nolako baldintzak eman ziren sasoi hartan, nori esker osatu zen talde hura, guzti hori bigarren maila batean uzten dugu, egun bizi dugun mailan alegia. Igoera aurretiko zuzendaritza taldeari anbizio falta leporatzen zitzaien, anbizioa entzute handiko jakolariak kontratatzean neurtzen zen garaian, diru afe-retan zekenak oso gureak.

Bi urte jarraian zilarrezko mailan, eta kirol arloan ez antzinateaz gain, arazo ekonomikoak sortu dira, egun ospatu behar den batzarre orokorrek adierazten duenez, gero eta larriagoak. Egun, Osasunaren zuzendaritza diren bi taldeen arteko desadostasunaren iturria dirua baita. Futbol zelaian astero erakusten dena da-

gokion mailan uzten dute, bigarren hain zuzen ere.

Azken bi denboraldietan kirol arloan egindakoa ikusirik, «igo egingen gara», leloa besterik ez zutela dirudi. Harrobiaren kalitate mailaz sobera berandu jabetu dira. Martxa honetan harrobi horren arrastoak orube soil batean ez ote diren kausituko pentsatzen hasiak gara batzuk.

Gaurko batzarrean edozein erabaki hartuta ere, zauri larria dauka gure Osasunak. Komunikabideetan zabaldu denez aurtengo balantzean berrehun milioitik gorako defizita aurrikosten da. Koloreak *versus* diruaren hotsa. UPN ingurukoa omen den taldeak zeri ematen dion lehentasuna erakusteko parada du.

Baietz Fermin gonbidatu arazo ekonomikoak larriagotzen direnean.



asteko pertsonaiak



Javier Garro
Osasunako presidentea

■ Javier Garrok, orain arte Osasunako presidente izan denak, futbol taldea utzi du. Orain, bazkideen oniritziaren zain daude zuzendaritzako kideek. Garrok taldea uzteko arrazoia, guztien ustetan, bakarrik gelditu dela da. Lehendakariaren eta zuzendaritzako beste partaideen arteko lehen liskarrak iazko udan hasi ziren eta Garro, geroztik, galdutako konfiantza berreskuratzen saiatu da. Egun, alde zuen bakarra Bakaikua lehendakariordea zen eta honek taldea utziko zuela erran zuen, paratutako dirua itzultzen bazioten. Joan den asteartean, lehendakariak «eskua luzatzeko» bilera batera deitu zituen zuzendaritza taldeko kideak baina ez zen inor agertu. Hau ikusirik, Garro bakarrik dagoela konturatu da eta taldetik aldegin du.



Juan Manuel Fernandez
Epailea

Juan Manuel Fernandez, Nafarroan Roldan kasua daraman epailea, azken egunotan Antonio Aragoni eta Gabriel Urralbururi buruz iritsi zaien informazio berria ikertzen ari da. Eguberritako porrak pasa eta gero, asteazkenean itzuli zen lanera Fernandez epailea. Berak errandakoaren arabera, egunotan aztertzen ari den informazioa banketxeetatik eta jabego erregistrotik ateratakoa da eta Gabriel Urralbururen eta Antonio Aragonen ondarearekin zerikusia du. Bestalde, epaileak, datorren astean, Luis Roldan, herrialdean Gobernu Delegazioko buru ohia deituko du deklaratzera. Roldan heldu den hiltzetaren San etorriko da Iruñeko Entzutegi Probitzialera kohetxo delituagatik inputatu bezala erantzutera.

ahaztu gabe!



ZINEMA ZIKLOA

Iruña: Zinema Gore eta Fantastikoari buruzko Lehen Astea antolatuko du Eguzki Bideoak elkarteak.

Zinema Astea bihar akituko da, baina zinema mota hau gustuko dutenek, oraindik ere izango dute gozatzeko parada. Gaur *El vampiro de Duserldorff*, *Alicia* eta *Días sin luz* laburmetraiak ikusi ahal izango dira eguerdiko 12.00etatik aitzina. Arratsaldean, berriz, gore zinemari bereziki eskainitako eguna da, *Mal gusto* eta *Generación merkromina* izeneko laburmetraiekin. Emanaldiak 18.00etan eta 20.00etan izanen dira.

Biharkoa Santiago Segurari zuzendutako eguna izanen da. Aktoreak Alex de la Iglesiaren bi luzemetraietan egin du lan —*Acción Mutante* eta *El día de la bestia*— eta hainbat laburmetraia ere zuzendu du.

Zinema Gore eta Fantastikoari buruzko Lehen Astea antolatzailerik Iruñera etorriko den baieztatu ez badute ere, Segurak prestatutako bideo bat ikusi ahal izango da.

Aipatu emanaldi guztiak Gaztetxean izanen dira eta sarrerak 200 pezeta balio du.

adi!

Euskalerría Irratia FM 91,4

Egunero asteleheneetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Karrape Irratia FM 107,8

Astean zehar, 12.20etatik 12.35etara *Gauza guztien gaitetik*, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Izarbeibar

Hiru natur ibilbide bailaran


Garesko Udalak aurkeztu du proiektua eta dagoeneko talde bat hasia da lanean

Garesko Udalak Izarbeibar bailaran hiru natur ibilbide antolatzeneko proiektua aurkeztu du. Asmoa aurrera atera ahal izateko jada lanean hasi da talde bat. Hiru ibilbide zehaztu dituzte, baina bidezidorretatik bide berriak egiteko aukera baztertu gabe. Bailarako txororik ederrenak erakutsiko dituzte ibilbideok.

Erredakzioa / Iruñea

GARESKO UDALAK Izarbeibar bailaran hiru natur ibilbide antolatzeneko proiektua aurkeztu du berriki, naturzale, mendizale eta txirrindulariei zuzenduriko alternatiba turistiko eskaintzeko asmoz. Proiektua aurrera eramateko talde bat jada hasi da lanean. Euren asmoa hiru bide nagusi zehaztea da, baina bidezidorretan barrena bide berriak egiteko aukera baztertu gabe. Esku artean dituzten bide horietako zati batzuek, gainera, bat egiten dute Donejakue Bidearekin, bertako hainbat kulturguneren interesa aprobetxatzeko asmoz.

Lehenengo ibilaldia, eta, akaso, zailena, Erreniega eta Roboko bailarakoa da. Erreniegan hasi eta bailarako hainbat herri zeharkatzen ditu ibilbide honek, besteak beste, Biurrun, Muruzabal, Adiotz eta Obanos. Bigarrena Nekeasekoa da. Honetan, Eunete, Eneritz eta Obanos zeharkatzen dira, beste batzuen



Naturzale, mendizale eta txirrindulariei alternatiba berria eskaini nahi die Garesko udalak.

ARTXIBOKOA

arteak. Arnotegiko ermita ere ikus daiteke bigarren ibilbide hau eginez gero. Hirugarren ibilbidea, azkenik, Arga ibaia da. Gares eta Mendigorria artean ibaiaren bideari jarraitzen dio ibilbide honek. Bidean, gainera, inguruko baratzeak ikus daitezke, baita urtaro bakoitzeko hegaziak ere. Hau da hiruren artean ibilbiderik erraz eta motzena, eta hainbat aldaera egiteko aukera ere ematen du. Besteak beste, Santa Ageda edo Santa Barbarako ermitetara irits daiteke bideari jarraituz. Bertatik 40 herri inguru ikus daitezke eguraldi ona eginez gero.

Hiru ibilbide horiek gune berdea delakoa izanen dute. Hau da, leku jakin batetik atera eta bertan bukatuko da ibilbide bakoitza. Horrela, bertaraino autoz hurbil daiteke nahi duenak. Hiru ibilbideetan zehar, halaber, bidean seinaleak jarriko dituzte, bai oinez doazentzat, baita bizikleta edo zaldi ganean doazentzat ere. Ibilbideak Donejakue Bidearekin bat egiten duen lekuan ere Donejakue Bidearen adierazgarri den maskorra jarriko dute.

Izarbeibar bailarako udalek pozik hartu dute Gareskoak aurkeztutako proiektua, eta bakoitzak bere proposamen zehatzak egiteko asmoa azaldu du. Ideien artean, gidariak hezteko ikastaroak antolatzeneko asmoa plaza-ratu zuten udaletako arduradunek. Halaber, inguruko lagun eta elkarten laguntza ere eskatu dute proiektua aurrera atera ahal izateko. Nafarroako Gobernuak dirulaguntza ematea ere espero dute bailarako ordezkariak. X

Viana

Zikoin habia San Pedron

■ Gurelur eta Mendi Taldeko kideek jarri dute

Erredakzioa / Iruñea

JOAN DEN OSTIRALAZ geroztik zikoinentzako habia dago Vianako San Pedro eliza zaharreko dorretako batean. Gurelur talde ekologistako bost kide eta Vianako Mendi Taldeko beste bi aritu ziren lanean aipatu habia jarri ahal izateko. Ordubete inguru behar izan zuten habia dorrean jartzeko, lurretik 30 metrora.

San Pedro elizan habia jartzeko ideia, Gurelur taldeko kideek zikoinak bertan habia egiten saiatu zirela ikusi zutenean sortu zen. Haizeak, ordea, hutsen utzi zuen zikoinen lana, ezin izan baitzuten habia egiteko behar zituzten adarrak ongi finkatu. Gurelur eta Vianako Mendi Taldeko kideek jarritako habiari esker ez dute arazorik izanen. Hasierako asmoa

San Pedro Elizan habia bi jartzea izan bazen, hala ere, azkenean bakarra egonen da. «Habiak elkarren hain hurbil egonda, zikoinen artean gatazkak sortzeko arriskua baitzegoen», Antonio Munilla Gurelur taldeko kidearen ustez.

Vianako San Frantzisko elizan ere beste habia bat dago baina zikoinek beraiek egina. Hala ere, ondoko eraikinetan egiten ari diren konponketa lanak direla-eta, bertara ez direla hurbilduko uste dute Gurelur-eko kideek.

Vianako habia ez da Gurelur-ekoek Nafarroan jarri duten bakarra, Urantzia eta Murillo el Fruton ere badago habia bana. Azagan, berriz, zikoinek egindako habia bat garbituko dute aurki Gurelur taldeko kideek, pisu handia duenez teilatua eror daiteke-eta. X

Larraga

Erregetako Krosa bihar

■ Aurtengoa bederatzigarren aldia izango da

Erredakzioa / Iruñea

URTEROKO ohiturari jarraiki, Errege Eguneko Krosa egiten dute bihar Larragan. Aurtengoa bederatzigarren ekitaldia izanen da eta aurreko urteotan gertatutakoa ikusita, honetan ere jende ugari bilduko da, ziurrenik, Larragako kaleetan. Parte hartu nahi duenak lasterketa hasi baino ordu erdi lehenago eman beharko du izena. Partehartzaileek, gainera, nahiz eta ez irabazi, kamiseta jaso eta eta gosari ederra ere hartu ahal izanen dute.

Sartei dagokionez, senior mailako irabazleak 25.000 pezeta jasoko du, baita oroigarria ere. Bigarrenak 20.000 pezeta irabaziko du eta hirugarrenak 15.000. Hauek ere Errege eguneko lasterketa honen oroigarria jasoko dute irabazleak be-

zala. Larragako korrikalari onenek ere izanen dute saririk.

Halaber, helmugara ailegatu den lehen emakumeari 5.000 pezeta emanen diote antolatzaileek oroigarriaz gain, baita korrikalari zaharrenari ere. Lasterketa honetako errekorra hausten duenak, berriz, 12.000 pezeta jasoko du. Horretarako, 22 minutu eta 40 segundotik behar denbora egin beharko dute partehartzaileek.

Ibilbideari dagokionez, txikienek 880 metro bete beharko dituzte. Infantilen eta alebilen mailan, berriz, 1.550 metrokoa izanen da ibilbidea emakumeentzat eta 1.940 eta 3.100 metrokoa gizonezkoentzat. Helduenak, azkenik, bai emakume zein gizonezkoek, 7.400 metroko ibilbidea izanen dute. Lehenengo partehartzaileak goizeko hamarretan aterako dira. X

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

?

Kartzelan sartzen zarelarik, preso sozialek bildurra ematen dizute. Guztiok kartzelari buruzko hamaika pelikula ikusi ditugu, eta horren ondorioz haiekin tratutan ibiltzerakoan dirua, erlojua eta ipurdia arriskuan egon daitezkeela uste dugu. Iruñeko espetxean, baina, normalean ez da horrelako arazorik izaten. Gauzak horrela, bildurra gaintzen duzunean, preso sozialak idealizatzen dituzu: «Sistematik landara bizi diren nolabaiteko iraultzaileak dira». Iraultzaile horietako batzuk hainbat ziri sartzen dizkizutenean —«Utzizkidazu 500 pezeta», «Emaidazu zer edo zer telefonoz deitzeko», etabar—, preso sozialen artean —intsumitu presoen artean, preso politikoen artean edota preso ez direnen artean bezalaxe— denetarik dagoela ikusten duzu. Badira preso sozial oso jatorrak, jatorrak besterik gabe, ez horren jatorrak, desatsegin samarrak eta jasanezinak.

Jasanezinen artean jasanezinenarekin elkartu nintzen joan den asteartean Zentruan, funtzionariaren bilgunean. Ez nuen uste inork



kartzelako tiporik gogaikarriena, aprobetxategiena, larrogorrena maite zezakeenik. Biko, baina, *vis a vis*-aren zain geunden, hilean behin neska laguna edota senideekin aurrez aurre egoteko izaten dugun aukera bakarraren zain hain justu. Beraz, norbaitek maite zuen, norbait bisitan etorriko baitzitaion.

Bederatzi terdian, *vis a vis*-aren hasiera orduan elkartu ginen, eta bioi gauza bera gertatu zitzaigun. Inor ez zen ordu horretan gu bisitatzera etorri, ez hamarretan, ez eta hamaiketean ere. Azkenean, funtzionariak neska lagunari telefonoz deitzen utzi zidan. Nobiak iratzargailua entzun ez, eta lo zerraldo geratu zela azaltzen zidan bitartean, aprobetxategia, irrifartsu, nire albotik pasa zen. «Yo sí que he triunfado, a mí sí que me han venido». Telefonoa eskegi nuen, eta nire buruari galdera larria egin nion: Aprobetxategia baino nazkagarriagoa al naiz? Ez al nau inork maite? X



XIX. mendeko
lehen urteetako
argazkia da
Auzako
dantzariak
agertzen dituen
hau.
F. HUALDE

Hualderen altxor amaigabea

Nafarroako XIX. mendeko milaka argazki bildu ditu Fernando Hualdek azken hemezortzi urteotan

Maisonave hotelean igandera bitartean ikusgai dira Fernando Hualdek azken hemezortzi urteetan Iruñea zaharri buruz bildu dituen argazkiak, 1875etik 1900era bitartekoak dira gehienak. Iruñeko argazki horietaz gain, Nafarroa osokoak ere bildu ditu, milaka dokumentu eta afitxe zaharrekina batera. Horiek guztiek argia ikustea du Fernando Hualdek helburu, «bestela ez baitute zentzurik».

Eduñe Elizondo / Iruñea

ORAINDIK Maisonnave hotelean egon ez denak igandera bitartean du Fernando Hualdek bertan bildu dituen argazki zahar eta bixiak ikusteko aukera. Iruñea zaharra —XIX. mendekoa, alegia— erakusten dute Maisonnaveko paretetan diren 34 argazkiok.

1875etik 1900era bitartekoak gehienak, badira ere bai 1861. urtean ateratako hiru. Errotxapea dute ardatz hirurek, eta Fernando Hualderen irudikoz, Iruñean ateratako lehendabizikotakoak dira.

Orain hemezortzi urte, Iruñeko Gaztelu plazako La Perla hotelean lanean hasi zenean esnatu

zitzalon Fernando Hualderi argazki, dokumentu eta afitxe zaharrek biltzeko gogoa, eta hotelaren historia izan zen moldatu zuen lehenengoa. La Perla, edonola, abiapuntua besterik ez da izan, hasiera.

Hemezortzi urteko ibilbide honetan Iruñeko mugak gainditu ditu, eta Nafarroa osoko argazkiek izan dute leku bere etxean. Bertan gordetzen du Hualdek bere «alxor amaigabea».

Etxeko lau paretek zainduta ilunpean edukitzea, hala ere, ez da, inondik inora, orain arte egindako lan guztiaren helburu, «ez baitu zentzurik argazkiak eta dokumentuak besterik gabe biltzea, ezagutzera emateko, argia ikus dezaten ez bada». Eta horretan saiatzen da bera, etengabe.

Dokumentu anitz bildu du Fernando Hualdek urteotan, 1600. urtekoak zaharrenak. Argazkiak, berriz, milaka ditu, Nafarroa osokoak. XIX. mendeko eguneroko bizitza erakusten dute, «arropa ibaian garbitu eta argindarrik ez zegoen garaia». Argazkion garrantzi etnografikoa azpimarratu du Hualdek, «bertan garai hartako nafarren bizimoduak, janzkera, ohiturak, dantzak eta kantuak ikus baitaitezke».

Nafarroa osoko argazkiak badiu ere, Iruñekoak dira gehienak, eta Erriberakoak, aldiz, gutxienak. Erronkariko paisaia eta biztanleak ere maiz agertzen dira Hualderen paperetan. Izabakoa bertakoa izateak, nonbait,

izan du bere lanean islada. Erronkariko janzkera eta bizitza agertzen dute argazki horietako gehienek.

Ezezagunen eskuzabaltasunari esker bildutako altxorra • Iruñeko eta Nafarroako artxiboetan maiz ibili da Fernando Hualde informazio bila, baina urte hauetan bildutako gehiena familia ezezagunen eskuzabaltasunari esker eskuratu du. «Gehienek kontent ematen dizkiote etxean gordeta dauzkaten argazkiak nik bezala interesa erakusten duen edonorri, zer edo zertarako erabiliko dituela jakinik».

Baina argazkiok biltzea ez da nahikoa Izabakoarentzat, eta bere irudikoz artxibo bizidunak diren zaharren elkarrizketaren bila

Fernando Hualde:

«Ez du zentzurik argazkiak eta dokumentuak biltzea argia ikus dezaten ez bada»

«Urte hauetan bildutako gehiena familia ezezagunen eskuzabaltasunari esker eskuratu dut. Gehienek kontent ematen dizkidate etxean gordeta dauzkaten argazkiak, erabiliko dituela jakinik»

ari da etengabe. «Horiek errateko duten guztia entzun nahi dutenak gero eta gehiago dira gaur egun, baina bada edadetuekin betiko lurpean gelditu den informazio garrantzitsu asko». Herrietako etxeetako paretetan ere, betiko isilpean gelditzen da egunero hamaika argazki eta dokumentu zahar, Fernando Hualderen ustetan. «Egunero galtzen dira etxeetan benetako altxorrak, gure historiaren aztarnak».

Ez da hori Hualdek galdutzat eman duen gauza bakarra, eta Erronkariko euskararen galera aipatu digu. «Nire aitonekin batera hil zen Erronkariko euskara, ahozkoa eta idatzia. Bera izan zen euskara eguneroko bizitzan erabili zuen azkena, baita Erronkariko arropak soinean egunero erabili zituen azkena ere». 1966. urtean hil zen Fernando Hualderen aitona, eta, azpimarratu duenez, «ez zekien inork garai hartan berak zekiena, euskarazko hiztegia jasotzeko ardura bere gain hartu». Izabako Estornes familiak ildo horretan egin duen lana, beraz, eskertzekoa dela nabarmendu du Hualdek, «modu orokorrean bada ere, Erronkariko euskara oinarri duen testu liburua», besteak beste.

«Gogoko dut, ez dago besterik» • La Perla hoteleko paretetik piztu zioten zaletasuna ez zaio urteotan hoztu Fernando Hualderi. «Gogoko dut» dio, «ez dago bes-

terik». Ez da, gainera, bakarra, eta, berak dioenez, «Jose Joaquín Arazurik badu horren errua». Bildumazaleon zeregina zehatza dela nabarmendu du: «Sakabana-tuta dagoena bildu, eta artxiboetan gorde gero». Hualdek, behintzat, argiro daki egun bere etxean dagoena artxiboan izanen duela azken gordeleku.

Bildumazaleok daukatena sailkatu beharra ere argi eta garbi nabarmendu du Hualdek, «Donostian jada egiten den moduan. Bildumazale pribatu guztiek daukatena jasotzen duen zerrenda dago, eta horrek edozein ikerketa lan egiten ari denaren lana biziki errazten du. Hemen ere zerbait egin da, baina ez, noski, han bezala, bide luzea dugu aurretik oraindik».

XIX. mendekoa ez da Fernando Hualderen interesa pizten duen historia bakarra. «Eguneko biltzea ere funtsezkoa da datozen belaunaldiek beraientzat historia zaharra izango dena ezagut dezaten».

Bera behintzat hasia da lan horretan, eta manifestazioak, protestak, festak eta beste hamaika ekitaldi jasotzen ditu bere argazki kameraren objektiboan. Aldizkari, argitalpen, panfleto eta beste ere gordetzen ditu Fernando Hualdek, baita pegatina politikoak ere: 30.000 bildu ditu dagoeneko.

Ondorengo belaunaldiei urte askotan zehar bildutako egungo historiaren zatiak utzi nahi dizkie Izabakoa heredentzian. X

XIX. mendeko Nafarroa argazkitan



Otsagabiako txinela bandoa herritarren aurrean irakurtzen. 1910-1920.

F. HUALDE



Iruñeko La Perla hotela, 1882. urtean. Taberna zen orduan.

F. HUALDE



Tuterako Santa Ana eguneko prozesioa, 1924ko uztailaren 26an.

F. HUALDE



Sevillako Erakusketa Iberoamerikarrean Nafarroako pabilioia, 1929an.

F. HUALDE



Erronkariko jantzia darama soinean 1929ko argazki honetako neskatxak.

F. HUALDE

Xanti Begiristain

Caroline Phillips eta
Mixel Ducau

■ Ziur naiz Euskal Herriko jende askori izen-deitura hauek ezer gutxi esango diotela. Pertsona hauek, aldiz, euskaraz kantatzen dute. Ziur aski, batek baino gehiagok, euskal musikagintzarekin baino lehenago elkartuko lituzke aipaturiko izen-deiturak atzerriko edozein gauzarekin; hala ere, esan bezala, euskal kantagintzari daude lotuak.

Baina azal dezadan afera poliki-poliki. Hasteko esan behar dut Mixel Ducau Ipar Euskal Herrikoa dela eta aspaldidanik ezaguna, musika talde dezentetan hartu duelako parte, esate baterako, Errobi taldean, Anje Duhalderekin, Zaldi Bobon, Funtzioa telebistako programan, eta gaur egun, Txiskolan ere bai. Alde batetik abestu egiten du, eta besteetik musika tresnak jo, hala nola, gitarrak, saxofoia, xirularen bat eta abar. Ikus dezakezuen, orain arte ez dago oso gauza harrigarrik, Iparraldeko euskalduna eta musikari-abeslaria. Baina, konturik txundigarriena orain heldu da, izan ere, Caroline Phillips ez baita sortzez Euskal Herrikoa, ez eta Frantziakoa ere, baizik eta Ipar Amerikakoa, gaizki ulertua ez baldin badut behintzat. Baina, hala ere, bien alabari eskaini dioten zinta edo diskoa entzuten baduzue, jakin ahal izanen duzue euskaraz kantatzen duela. Eta ez euskaraz abestu soilik, baizik eta baita pianoa jo eta euskaraz egin ere, telebistan ikusi nuenez. Gainera, nere iritzi apalean, esango nuke oso ahots ederra duela. Euskal Herrira etorri baino lehenago, uste dut opera estudiatu zuela. Dena den, hau ezin dut ziurtatu, baina edozein modutan dela ere, aitortu beharra dago, bere ahotsik ateratzen den doinua oso atsegina eta kalitate handikoa dela.

Ikusten duzuen, duela zenbait urte ezagutu zuten elkar Carolinek eta Mixel, eta orain dela hiruz geroztik elkarrekin bizi dira, hamalau bat hilabeteko neskatila dute, azken urte honetan elkarrekin aritzen omen dira musika egiten, jotzen eta abesten, eta diodan bezalaxe, esandako diskoa duzue frogarik bikainena.

Diskoan entzun daitezkeen abestiei buruz, honako hauxe adieraziko nuke, alegia, musika mota eta erritmo askotxo eta bariatuak direla. Batzuk, euskal hitzak dituzten atzerriko doinuak dira, beste baten bat Euskal Herriko kanta herriko klasikoak, *Haurtxo txikia* kasu, besteren bat Errobi eta Zaldi Boboren garaietatik berreskuratua, eta azkenik, beste batzuk erabat berriak. *Lurra* izeneko kantak aipagarriak da, bukaeran Carolinek ingelesez ere abestea. Zenbait kanta, aitortu behar dut, niri pertsonalki hunkigarri suertatu zaidala, esaterako, *Agur ene Euskal Herri, Alaia zu, Gure*



familia eta abar. Ez dut utzi nahi aipatu gabe ere, hor topatuko ditugula, besteak beste, Xabier Amuriza, Daniel Landart, Andoni Egaña eta abarren hitzak.

Bukatzeke, azaldu nahi dizuet niretzat oso ustekabe polita izan dela bikote honek eskaini diguna Durangoko Azokan, eta aldi berean, Caroline Phillips-en ekarpena arrunt ona izateaz gain, oso eredugarria ere badelakoan nago. Apika, euskal herritar batek baino gehiagok badu norengandik ikasi nahiko balu, izan ere, Joxe Miguel Barandiaranek noizbait esan zuen bezala, euskaldun petoa izateko ez da aski geure erroak ongi ezagutzea, baizik eta ezinbestekoa dugu euskara ere menperatzea. Zer gehiago eska geniezaioke Carolineri, eh? ■

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

Berriz laborarien
liburuez

■ Duela arras gutti, urte laurden bat inguru, eta Eusko Jaurlaritzaren eskutik, 344 orrialde dituen *glossarium* eder bat eskuratzeko parada izan da. *Nekazaritza hiztegia* izenburupean Arabako hiriburuan inprimaturiko laboraritzaren munduan murgildurik daudenendako lanabes baliagarria hain zuzen ere. Bertan, jaso eta eskaintzen den bibliografia zabalaren barnean, txoko honetan jada ekarri zenbait lan aipatzen da —beha 172, 173 eta 174. Nafarkariak—. Guztiarekin ere, badira bestelako sarrerak gaurkoan azaleratu nahi genituzkeenak.

Horietako bat Jose Maria Ampueroen lana dugu. Hiztegi berrian *Nekazariyen cartellachua Bizcaico eusqueran* liburukia isladatzen da, Bilbon agertu zena 1909. urtean. Halarik ere, esan behar da hauxe *Cartilla del agricultor vascongado para uso de nuestros labradores* Bilbon ere agertu 1886ko erdal lanetik irauli itzulpen zuzena dela. Bestaldetik ere, Ampuero beste eskuliburuaren egilea dela oroit daiteke, esate baterako nekazarien kartillatxoaren gehigarri gisa ondu *Breve estudio de los abonos químicos y sus aplicaciones*, Bilbon, 1903an.

Ignazio Gallastegiren *Sagardotarako sagarrak: sagardotarako sagar onak izateko sagastiak nola jarri ta zaitu bear diran*, 1917. urteko lana ere aipatzen da. Gipuzkoako Aldundiak argitaratu liburu honen egilea Fraisoro etxeko zuzendaria genuen. Aurrekoaren kasuan bezala, jatorrizko lana erdera hitzez tajaturik bazegoen ere, euskal aldaerak irakurle abondo bereganatu zituen. *Nekazariak* izeneko sarrera baten ostean, hiru kapitulu nagusitan banatzen da edukia. *Sagasti lanak —inausi ta garbitu, beste egiteko batzuk eta zimaurketa—, Sagasti jartzea —azia, mintegiak, txertatu, eta sagar ondoen aldaketa—, eta Sagar ondoen gaitzak nola sendatu.*

Bordele aldean ere Pierre Etcheberri *Laborarien gidaria* izenburuko lanttoa agertarazi zuen Baionan 1921ean, A. Foltzer inprimatzailearen eskutik. Bi libera eta erdiko salneurria zuen liburu hau «Euskaltzaleen Biltzarreko yaunez aprobataua eta heyen baimenarekin» atera zen argira. Haren 296 orrialdeetan barna *Nola molda esku eta buru lanak?* galderari erantzuten saiatzen da sei kapitulotan: *Lur erailen hontzeko manerak, Eraintzak eta errekoitak, Animaleen bazkak, Mahats eta arno, Arbolak, eta Baratzeak nola molda ta trata.* Urte berean Jon Miren Egileor Egiraunek *Bedar solo iraspenna* izeneko liburua agertu zuen Bilbon. Aldez aurretik, 1920an Iruñean egin bigarren euskal ikasketen kongresuan *Enseñanza agrícola* izenburuko hitzaldia egin zuen. 1929koa da Miguel Urretaren *Olo ta ollotegiak*, eta 1930ekoa Belaustegik ondu *Zugatza*.

Manuel Oñatibia Aurela, 1956ko San Frantzisko Asiskoren saria jaso zuen bere *Baserría diru bidean: baserriko gora beherak aurrera nola eramán*, hurrengo urtean Donostian argitaratuko zena. Lan honen hitzaurrea dena San Ignazioren omenezko festak zirela-eta urte bereko Azpeltiko abere txapelketa egunean eta 400 bat baserriarren aurrean emandako hitzaldia dugu. kapitulu ugari, denak baserriko ekonomiarako baliagarriak: *Ukullua, belar ondu ta belar tokia, bei aukeratze edo berexketa, beitaldea nola ondu, aziketa, jan banatze edo janaritzea, janariak, ganaduak nola janaritu, esnea nola sortzen da, esnea ona nola, esnea zerk gelitu ta ondu, esne saltzea, antzakeria, bat bateko gaixoaldiak, kutsuko gaitzak, beste gaixoaldi batzuek, ganadu sal erosteketa, ganadu tresnak, jakingarriak, baserriaren kontu eramatea.*

Finitzeko, gure Lakoizketarenaren ildo beretik datorkigukeen lantto bat aipatu, hain ezaguna bederen hagitzen ez dena. Hauxe Nafarroako Diputazioaren artxiboan dago, Bonaparteren paperean artean, m / s B-22 signaturaren azpian. Bada XIX. mendeko langai batzuk landare buruzko hiztegi bat sortzeko. Hizki garbiko eskuizkribu hau, 30 zentimetroko 6 orrialdeko osatua da, bertan A hizkitik H hizkira doan hiru hizkuntzetako zerrenda agertzen da, erderaz, euskaraz eta latinez. Azkueren arabera Uriarterena izan zitekeen, nahiz hau oso ziurra ez izan. ■



Iruñeko Hiria xakeko tomoa itxiko laugarren jardunaldiko partida, 1995eko abenduaren 30ean jokatu.

Miguel Illescas (Catalunya), 2.620 ELOkoa — Roman Slobodjan (Bielorrusia), 2.500 ELOkoa.

1. d4, Zf6; 2. c4, e6; 3. Zc3, Ab4; 4. e3, 0-0; 5. g2-e2, d5; 6. a3, Ae7.

Atzera egite hau agian ez da oso ona, denbora galtzen da eta.

7. d5, d5; 8. b4, c6; 9. Zg3, Ge8; 10. Ad3, bZ-d7; 11. 0-0, Zb6; 12. Gb1, Ae6; 13. a4, Ad6; 14. a5, Zc8; 15. f3, Ac7; 16. Za4, Zd6; 17. Zc5, Ac8; 18. e4.

Beltzak pilatuta daude hor atzean. Txuriek abantaila bila presioari ekin diote.

18., b6; 19. e5, c5; 20. b-c5, Zc4; 21. Ac4, c4; 22. f6, Df6.

Nabaria da 'c4-ko' peoiaren ahultasuna.

23. Ze4, Dg6; 24. Ad2, Ah3; 25. De2, Ge7.

Zutabea kontrolatzea (aG-b8) zuhurragoa izan zitekeen.

26. Eh1, Af5; 27. Gb7, Ac8.

Ikus koadroa. Maisuek badakite noiz eskaini behar den pieza bat (nola irabazi partidak, alegia).

28. Gc7, Gc7; 29. Af4, Ge7; 30. Ad6, Ge6; 31. Dc4, Ge8; 32. Da4, Ad7; 33. h3, a6; 34. Eh2.

Erregea leku seguruan ipini dute, pieza guztiak jokatu ahal izateko.


34., f5; 35. Zg3, h5; 36. d5, aG-c8; 37. h4, Df7; 38. c6, Gc6; 39. Df4, cG-c8; 40. Gb1, Ab5; 41. Dg5, Ge6;

42. Gb4, Dg6; 43. Dg6, Gg6; 44. Zf5.

Bukaera egina dago.

44., Ef7; 45. Ze7, Gd6; 46. Zc8.

Beltzek amore eman zioten erasoari.



Zer ekarriko 1996ak?


Lice Morenok, Nafarroako Parapsikologoen Elkarteko zuzendariak dioenez, ona izango da urte hau

Nolakoa izango da astelehenean hasitako urtea? Oparoa ala kaskarra? Ekonomiak gora egingo du, gobernu aldaketa izango ote da? Indarkeriak izango ote du amaierarik? Ustelkeria kasu gehiago azaleratuko du prentsak? Zoriontsuagoak izango gara? Denok buruak ditugun dudak dira, eta batzuk argitzeko Lice Moreno igarlearengana jo dugu. Hemen duzue igarpena, baina ez sinetsi goitik behera; izan ere, «etorkizuna aldatu, aldatu egin behar baita».

Alberto Barandiaran / Iruñea



«Astrologiak jarrera eta jokabide nagusiak aurreratzen ditu, baina lan egiteko tresna besterik ez da. Ez, inondik inora, sententzia bat»



«Ezkerra eta eskuina, betiko alternatibak, nekatuta daude; ez da harritzekoa izango sentsibilitate ezberdina duten pertsonak politikan ikustea»



«Urte honetan garrantzi handikoa izango prentsak izango duen eragina, baina komunikabideen artean tirabira franko sortuko dira»



URTE oparoa izango da 1996a, ekonomian bederen, baina istiluak ere ez dira faltako gizartearen muturreko jarrerak areagotuko dira-eta. Sindikatuek eragin bereziki garrantzitsua izango dute urte berri honetan, eta politika egiteko modu berriak eskuin-ezker bikotea gainditzen hasiko dira epe laburrean. Hauexek dira Lice Morenok, Desoion laketutako igarleak, urte berrirako iragarri dituenetako batzuk. Moreno 1992an sortu zen Nafarroako Parapsikologoen Elkarteko zuzendaria da, eta urteak daramatza astroak eta ortzia aztertzen eta etorkizuna igartzen. Azken bi urte hauetan egin bezala, aurten ere sartu berri garen urteari buruzko ikuspegia eskatu diogu, iritzia besterik ez baita Morenok eman ahal duena. Ez, inola ere, igarmen edo sententzia, berak «zientzi lana» egiten baitu. «Astrologiak jarrera eta jokabide nagusiak aurreratzen ditu, baina lan egiteko tresna besterik ez da. Ez, inondik inora, sententzia bat. Tresna honen bidez etorkizuna antzeman dezakegu eta horren arabera jokatu, baina aldatu, alda daiteke. Are gehiago, gauza txarrak aldatu egin behar dira». Beraz, Nafarroaz eta Euskal Herriaz ezezik, inguruko herrietan buruz ere iritzia eskatu diogu zientzia-gizon honi eta berak gustura erantzun.

«Hitzarmenen urtea izango da», dio Morenok. «Aurten Europako Elkartearen lan egitea egokituko zaigu, bestela atzeratuak geldituko garelako, eta dena egongo den Europako erraldioen aurrean egingo dugun negoziazio horren menpe». Hitzarmen giro honek ez du, alabaina, eraginik izango euskal gatazkan, arlo ekonomikora mugatuko baita soil-soilik. Hori dela eta, biolentzia ez da gutxituko Euskal Herrian; are gehiago, urte honen hasierako zatian oso ekintza bortitza antzeman du igarleak. «ETA mende honen bukaerara arte izango da bizirik, eta itzalean atentatu bereziki garrantzitsua ikus daiteke. Helburua goi mailakoa da, esan dezagun Espainiako Erregea edo Lehendakaria,

aspaldidanik prestatzen ari den ekintza delako hori. Martxoan edo apirila izango dira hilabete arriskutsuenak horretarako. Urte honetan ez dira negoziazioak hasiko, eta baleude ezkutuan izango liriteke, inor ohartu gabe».

Urte honetan, halaber, muturreko ideiek indarra hartuko dute igarlearen ustetan, mende honen bukaeran dagoen joera indartuz. «Espainiako ortzi-kartan, Pluton Sagitarion sartzen da, eta ideien erradikalizazioa ez da etengo. Mundu osoan dagoen neonazionalismoak izango du oihartzuna hemen ere, gero eta gehiago». Gauzak iragarri ezezik, aldatu ere aldatu egin behar direla esan ohi du Nafarroako Parapsikologoen Elkarteko lehendakariak, eta hori dela-eta auzartu egiten da egoera baloratze- ra. «Nazionalismoak oker daude. Astrologikoki oso urte txarra da horretarako, Espainia kinka larriaren egongo delako urte honetan. Espainiako karta zeru erdia da, eta hor nazionalismoek indar handia dute. Horrek esan nahi du nazionalismoek berean jarraitzen badute kalte egingo dietela baita beren buruei ere. Hartu beharko litzateke, beraz, beste jarrera umibertsalago bat: Europar gaude, eta lortu behar dugu albat batuen joatea Europa horretara, batasunetik datorrelako indarra. Beraz, une egokia da indarrak batzeko, ez bereizteko».

Lice Morenok uste du gobernu aldaketa izango dela Espainian aurten, baina hortik aterako dena oso ahula izango omen da, bera bakarrik aurrera ateratzeko indarrik gabea, eta beste alderdiekiko koalizioen morroi. Gainera, ez omen du lortuko gizartearen konfiantza, ez eta legeingintzaldia amaituko ere. Urte honetan nabarmentzen hasiko da mende honek ekarriko duen ideia politikoaren aldaketa. «Urano Akuarion sartzen da aurten, eta heldu diren zazpi urteetan ideia aurrerakoiek izango dute nagusitasuna. Ezkerra eta eskuinaren arteko oreka ez da aldatuko, elkar joka ariko dira. Baina horien inguruan hasiko dira ateratzen alternatiba berriak, denak aurrerakoiak, eta berdeak, alternatiboak..., gero eta gehiago azalduko dira politikara. Betiko bi alternatibak nekatuta daude, eta ez da harritzekoa izango aurrerantzean sentsibilitate ezberdina duten pertsonak ikustea».

Ekonomiak joan den urtean erakutsitako zuzpertzeari eutsi egingo dio aurten, eta, oraindik ustelkeri kasuak azalduko badira ere, Lice Morenok dioenez «gogorrena joan da dagoeneko». Hala ere, zenbait arrasto azaleratuko dira oraindik denbora batez. Enpresa publiko asko pribatizatuko dira, eta oso inbertsio onak egingo omen ditu Espainiako Gobernuak. Halaber, komunikabideek izango duten eraginaz ohartarazi nahi izan du igarleak. «Urte honetan garrantzi handikoa izango da prentsaren eragina, baina komunikabideen artean tirabira izango dira. Izango dira auziak ere, argitaratutako berri batzuk direla medio». X

◆ Juan Gorriti ◆ Zurgina

«Lagunei esker galdu dut lotsa»

Juan Gorriti nafarrak Araitz bailarako bizi-modua jasotzen duen erakusketa jarri du Donostiako San Telmon. Basoko bizitza hirira eramán du, Sigfrido Koch bere lagunak orain zortzi urte eskatu zion bezala. Lotsak geldiarazi omen zuen orduan baina oraingoan, guzti-guztia galdu eta zurezko meta jarri du San Telmo elizako alda-rearen erdi-erdian.

Edurne Elizondo / Iruñea

Juan Gorriti zurgina bere erakusketa berriaz mintzatu zaigu. Zurgina, ez baitu gogoko artista izena. Ezta pintore edo eskultore. «Pintura eta eskultura sentitu egiten ditut, ez besterik». Herriaren artea sentitu eta islatzen duen bezalaxe.

■ **Zur-meta San Telmo elizako alda-rearen erdi-erdian paratu duzu. Nola sortu zaizu egun hauetan Donostian ikusgai duzun erakusketa egiteko ideia?**

Uztailean bururatu zitzaigun erakusketa hau egitea. Rafa Zulaika zuzendaria eta Javier Martinez teknikariarekin elkartu nintzen eta Donostian aspaldian egona ez nintzen, erakusketa bat prestatzeko eskatu zidaten. Orain zortzi urte ere bertan erakutsi nituen nire gauzak baina halakorik egiteko lotsa nuen artean. Sigfrido Kochek joateko esaten zidan baina ez nintzen ausartu. Araitz bailaran bizi naiz ni, Euskal Herriko txoko txiki bat da baina badu bere hizkuntza, formaren hizkuntza. Mendira joan eta meta bat, edo jendea lanean edo artzainak txistuka ikusten ditudanean bizirik dagoela konturatu nahi aiz. Herriaren artea Donosti eramateko aukera



Donostiako San Telmo museoan dago ikusgai Juan Gorritiren erakusketa.

EDURNE KOCH

honi, beraz, ez diot ihes egiten utzi, herria baita artista.

■ **Orain zortzi urte Sigfrido Kochi aipatu zenion lotsa galdu duzu, beraz?**

Sigfrido Koch laguna izan nuen, laguna baino gehiago. Zura sentitu egiten zuen berak. 1988. urtean lehen erakusketa egin nuenean, etxean nituen zurezko metak eramán behar nituela esaten zidan berak, baina ni ausartu ez, itxita nuen leihatila hura. Baina orain, bere omenez edo auskalo, lotsa hori galdu egin dut. Leihatilak irekitzen lagundu dit Sigfridok eta orain emozioatuta nago. Bere omenez egindako lana ere San Telmon dago. Orain hamar bat urte Mikel Laboak emandako jaialdi batean du lan honek hasiera. Txalaparta eramán zuen eta azken orduan jo zuten. Nik, lau makila ikusi beharrean, lau

mila ikusi nituen, zoragarria!, lau mila makila gora eta behera!. Biharamunean eskultura txikia egin nuen. Sigfridok nik egin nuen gauzarik onena zela esan zidan eta handiago egiteko. Eta eskultura handi hori, txikiarekin batera, San Telmon dago, bere omenez, lagunik gabe ezin baita ikasi. Lotsa halako lagunak edukita galtzen da. Sigfrido hor non-bait egonen da, zerura ez baita ailegatuko bidean taberna bat baldin badago. Guretzat bizirik dago Sigfrido.

■ **Aldarearen aurrez aurre abar artean mende erdi gertuko zahaitz enbor erraldoiak jarri dituzu sorginen omenez ere. Zer dela-eta?**

Sorginak herriko jenderik zoragarriena ziren. 1595. urtean Araitz bailarako hamazazpi sorgin eramán zuten Iruñeko kartzelara eta han utzi zituzten trapu zaharrak bezala, goseak hil zituen arte. Nik gauza bat esaten dut: herriak ez du gorrotorik izan behar, herriak barkatu egin behar du baina ahaztu sekula ez, ezta pentsatu ere. Sorginei buruz

dagoen ideia aldatu nahi dut, sorginak ziren...hara, ni izanen nintzateke sorgin bat! Gu, sorginok, herriari bizi gara eta ez dugu ahazten.

■ **Artisau-artista hitzez izendatu zaituzte hainbat komunikabideetan. Zer deritzozu?**

Begira, mendian jaiotzen naiz ni. Oiloak eta behiak ditugu etxean, zura maite dut, kolorea sentitzen dut, lagun asko ditut eta atea ez dut itxi. Nik pintura eta eskultura sentitu egiten ditut, herriko historia sentitzen dut, beraz, zergatik jarri behar zaio izen bat horri? Zergatik artisau edo artista? Nik beti esaten dut zurgina naizela. Bailara honetan bizi naiz eta nire herria maite dut, besterik gabe. Artista edo artisau? baita parrandero ere!

■ **Margolari izan edo ez izan, pinturaren munduan ere egin duzu lan nahikoa azken urteotan.**

Bai. San Telmon lehen erakusketa egin nuenean, hemen Euskal Herriari altxariak margotzeko aspaldi zegoen ohitura berreskuratu nahi nuen, baina ez nekien margotzen. Orduan, lagun

s o s l a i a

Oderitzen jatoa, Betelura ailegatu zen txikitán. Zura txiki-txikitandik izan du gogoan eta ezin nuenez ikasi, tailerretan ikasi nuen, denet galdezka eta lotsarik gabe.

Zurak Donibane-Lohizuneko errestaurazio tailer batera eramán zuen eta bertan eman zituen hiru urte «zoragarri».

Ezkondut berria itzuli zen Hegoaldera eta lan bila, baserriko tresnak konpontzen aritu zen. Garai hartan ezagutu zuen bere bizitzan aparteko garrantzia izan duen Remigio Mendiburu Hondarribiko eskultorea. Remigiorekin batera, Oteiza, Sigfrido Koch eta beste ezagutu zituen.

Betidanik zurarekin egin du lan eta etxea Jose Luis Zumetaren eta bere lanekin beteta dauka: pinturak, eskulturak, altxariak, zeramika, txotxongiloak... baina zura da nagusi, nahiz eta azken urteotan pintura ere landu duen.

batekin hasi nintzen margotzen. Maixua laguna izanik, primeran! Orain Zumeta daukat irakasle, zoragarria. Kolorea barruan daukagu, hartu al duzu behin pintzel bat eskutan? hasi egin behar da, galdetu eta lotsa galdu. Nik ez dut lotsarik eta behatarrekin ere margotzen dut. Bat gaizki aterako zait, bigarrena ere bai baina kolorea sentitzen dut, ni ez naiz pintore. Behin Rafa Balerdi etorri zen etxera eta koadro bat eramán zuen. Pintoreek esaten dute Balerdi dela maixuen maixu. Orduan, margotzen jarraitzeko esan zidan, haur batek bezala margotzen nuela. Halako maixu batek hori esaten badu, zer egingo dut, ba, nik? jarraitu. Baina pintore naizela esateko aurpegia behar da. Nik pintura sentitzen dut eta ez dut lan egiteko lotsarik. Lagunak ditut eta galdetu egiten diet. Hori da.

«Nik pintura eta eskultura sentitu egiten ditut, herriko historia sentitzen dut, beraz, zergatik artista edo artisau izan behar? Nik beti esan dut zurgina naizela»

P A N E
LUCRANDO

ZALDI ERDA

